


PRO



-ARRAINDEGIA -ITSASKIAK
-ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK

I. Olañeta, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

DERMOESTETIKA
INTEGRATUAREN ZENTRUA

PILAR

(Estetika mixtoa
espezializatua)

- MAKILAIA IRAUNKORRA
- HIDROMASAIA
- ESTETIKA MORFOLOGIKOAREN
DIAGNOSIA
- AURPEGIKO TRATAMENDUAK

Zubiaurre, 24 - 1. esk. ☎ 17 30 66



Trabaku Goiko
Taberna

NEKAZALTURISMOA

Trabakua Telf. 17 00 09
Mallabia

Urdaitegia
MAITE

Merkatu Plaza, 40
Telefonoa: 17 24 12

Zentro gallegua

50 URTE BETE DIA ERMURA LEHENENGO GAILLEGUAK HELDU ZIALA. MALETATXO BATEN PREMIAZKO LAU GAUZA SARTU TA EUREN HERRIXETAN TOPATZEN EZ ZEBEN BIHARRAN BILLA ETORRI ZIAN. ASKO EGUNEN BATEN BERTARA BUELTATZEKO ILUSINUAKIN BIZI ARREN, BESTE ASKO HEMENTXE, EUREN HERRIXAN GERATZEKO ASMUA DAUKIE.

Ehundaka dia Galiziatik etorritako zein gaillegu edo gaillegiekin ezkonduetako pertsonak. Gehixengua, kuotak ordaindu ez arren, sentimentalki Zentru Gailleguaren urran dao. Zentruaren barruko martxa jakin nahi ta bertako arduradunekin egon gara. Aurten lehendakari modura dauan Gonzalo Alvarez baiño kontalari hobiaorik ezin topau!

- Kontaiguzu pixkat Zentruaren hasierako urtiak.

• Ba, oin dala 26 urte, lagun talde bat batu zan zentru sozial ta kultural bat eiteko asmoz. Danak ez zian gailleguak, euskaldunak ta erdaldunak be bazeuazen tartian. Alkartzeko, berba eiteko ta egoteko leku bat nahi zan, gailleguak ta kultura gailleguakin bat zetoan guztixak egoteko leku bat. Luzaruan esfuertzu ekonomiko haundixa ein bihar izan zan danau aurrera etaratzeko. Apurka apurka hazten joan zan, bazkide kopurua geratu zan arte. Baiña oin dala zortzi hamar bat urte, talde folklorikuak martxan ipiñi zian ta umiak sartzeeran, Zentruak gora ein zeban. Oin bi taldetan banatuta dao, dantza ta musika tresnen taldea.

Laura ta Roberto dantzari ta musika jolaiak dia. Euren batera talde euskaldun ta erdaldunen semiak dao. Taldian sartzeko sekula ez da prezisua izan gailleguen semia izatia. Ondo konpontzen dia ta gustora dazela esan doskue.


- Gaitiaz gain, beste musika tresnarik erabiltzen da?

• Bai, gaitiari perkusiñozko tresnekin laguntzen jako. "Vierak", "Bonbua", "Tanborra", "Karrañola", "Pandereta", "Ferraña" dia sarrixen entzuten dianak.

- Zeintzu dia dantza ezagunenen izenak?

• Ba, dantzari ezagunena "Muñeira" bada be, dantza ta pausu desberdin gehixao dao. Esate baterako, "Foliadas", "Pandeiradas", "Jota" "Alborada"... Kuriosua da baiña pertsona gehixenguak Galiziako dantza lez "Muñeira" ta Kataluñakua lez "Sardana" ezagutzen ditzu. Baiña, ikusi dozuenez beste batzuk be dantatzeko ohituria dao.

Gonzalo Alvarezekin segitzen dogu kontu kontari.



SANTOS VEGA

Gailleguak olagarroa prestatzen iaioak dira

- Ermuan Orense aldetik etorritxako jente asko dago. Arrazoirik badago horrenik?

• Bai, hasierako urtietan Orenseko probintzia barruko nekazal jentia ailegau zan hona. Hemengo biharra kobrau eitxen



SANTOS VEGA

Zentro Gallegoko "gaiteiro"-en banda

zan. Euren etxietan geratu ezker, ez zebe dirurik ikusiko. Haraz diruaz beste terreno edo behiren bat erosi biharko zan. Hemen han beste edo gitxiago bihar ein ta aurreratu eitxen zala ikusteean, zertarako bueltau? Euren herriko ta familiakuei idazten zoutsien, La Coruña zelan idatziko zebe? Trenian etortzen zian Ermuraino ta aurreko egunetan ezagunen baten arrimora lo ta jaten zebe, apupillo modura etxeren bat topau arte. Biharra topatzia zan ardura gitxien emoten zoutsena, hurrengo goizerako bazeukien ta.

- Herrixan beste Zentro regional batzuk baiño integratuaz zagozjala uste dozu ala ez?

• Bai, alde batetik urte asko darguzelako ta bestetik hemengo jentia zentrua aurrera etaratzeko, asko burrukau bihar izan dabelako. Oin dan zentro kultural ta zabal hau izateko bide

«Gaillegua fiña ta bihargiña danez, ondo ikusitxa egon da»

asko ein bihar izan da. Solera haundixa daukau, bai. Ahaztu barik, gaillegua fiña ta bihargiña danez, ondo ikusitxa egon dala.

Euskaldunei be Galizian harrera on ona ein jakue beti.

- Indar haundixa emoten doutsezu "kultural" berba horri, ez?

• Baiba, gure ekintzak goitxik eta beheja kulturalak dia ta. Guk hemen Xornadak antolatzi az gain, urtian zihar antzerkixak, akanpadak, erakusketak ta marraxki

lehiaketak prestatzen ditzugu. Lehen aitzatutako dantza ta musika tresnen taldiekin batera baitxa, futbol talde bat, gimnasiako talde bat ta korala daukau. Oin ping-pong ta mahai jokuen kurtso bat hastear daukau. Ahaztu barik liburutegixa urte guztixan zabalik dauala. Gure ekintza asko ta asko Ermuko herriantzat eitxen ditzugu, herrixau izan dalako lagundu doskuna.

- Zer dia "Xornadas das Letras Galegas"ak?

• "Xornadak" Rosalia de Castro idazle gaillegiaren errekuerdun Maiatzaren erdikaldian ospatzen dan jai bat da. Ermuan azkenengo hamar urtetan ein dia. Dana dala, urtero idazle edo artista gaillegu baten biharra ta izena goratzen da. Hori pertsoniori Galiziako Xuntak aukeratzen dau ta mundu guztiko Zentro Gailleguetan Xornadak berari dedikauta dao. Aurten Luis Seoane Lopezi dedikau jakoz. Aste betez danetaiko gauzak eitxen dia: erakusketak, dantzak, hitzaldiak, kirolak, erromerixak... Hau dala ta liburutxo bat dago kalia, dendari, tabernari ta pertsona askoren laguntzari esker.

- Zuen artian gaillegoz berba eitxen dozue?

• Batzutan, ze gaillegoz ez dakixen asko dauanez (aitxu danak ein arren), erderaz ein bihar izaten dogu. Gaillegua lagun artian, kartetara zabizenian, erdi brometan gustora eitxen dozu. Nik, esate baterako, gaillegoz ironia gehixaokin eitxen dot berba. Oin, neure biharrian edo serixo samar berba ein bihar badot, ez daukat erabiltzeko ohiturarik.

Estibalitz González

GESTORIA
eta
AHOLKULARITZA
M. URIARTE

MARQUÉS DE VALDESPINA, 14 - BEHEA
TELEFONOA: 17 33 87


DULCILANDIA

✓Gozokiak
✓Fruitu sikuak
✓Urtebetetze opariak

Zubiaurre, 14

ERMUA

HARATEGIA - URDAITEGIA
P. ARAMBERRI



* Bertoko txahala * Urdai egosia
* Idi txuleta * Etxeko txorizua
* Berton hildakoa * Txistorra

Kantabria, 1 Tfnoa: 17 64 65